



Gela irekia

WhatsApp, lagun-taldetik harago

*Jaione Aldazabal
Montse Fernandez
Igor Zaballa**

Charles Robert Darwinek, jakintza unibertsaleko izen handienetakoak, 1859an espezien eboluzioaren teoria entzutetsua azaldu zuen, eta, bes-teren artean, hau esan zuen: “Ingurura moldatzeko gaitasun handienak dituzten espeziek baino ez dute aurrera egiten”. Egungo zientzialariek ere, ñabardurak ñabardura, Ingalaterrako ikerlariaren teoriak indarrean segitzen duela baieztatzen dute.

XXI. mendera etorrita, ugari dira teknologia berriek gure esku jarri dituzten baliabideak: aparatu elektronikoko adimentsuak, zernahirako aplikazioak... Irakaskuntzaren eremuan WhatsApp-ak presentzia nabaria du ikasgeletan; gero eta gehiago dira eskola barruan mezuak bidaltzen dituzten ikasle eta irakasleak. Hala, Ulibarri Euskaltegiak aplikazio arrakastatsu horrekin esperimentatu egin du, eskolako dinamikan txertatu ala erazi aztertzeko.

Ondorengo lerroetan egiaztatu ahalko duzunez, ez dago zalantzarik, irakaskuntzak ere men egin behar dio espezien eboluzioari buruzko adituari: ingurura moldatu aurrera egiteko. Jarraian duzun artikuluak 2014an euskaltegiko hainbat ikaslerekin WhatsApparen erabileraren inguruan izandako esperientzia aberasgarriak laburbiltzen ditu.

* jaione@ulibbarri.eus
montserrat@ulibbarri.eus
igorz@ulibbarri.eus

1. Sarrera

Azken urteotan eskuko telefonoaren erabilerak gora egin du nabarmen. Gu-txi dira telefonorik ez duten pertsonak; izan ere, Eustat-eko 2014ko maiatzean argitaratutako datuen arabera, 15 urtetik gorakoen artean eskuko telefonoaren erabilera % 95,8koa da¹. Nerabeen eta umeen artean gehiegizko erabilera ere ohikoa da. Horrek arazoak sortu ditu ikasgeletan; kasurako, ikasleek arreta galtzen dute telefonoarekin eta ez diete irakasleen azalpenei jaramonik egiten. Baina ikaskuntza-irakaskuntzarako oztopo izan beharrean, sakelakoa geure egingo bagenu?

Hizkuntzen ikaskuntza prozesu bizia da, ez da mugatzen ikasleek gelan ematen duten denborara. Eskuko telefonoari esker euskararen irakaskuntza ikaslearen poltsikoan bertan egon daiteke. Kontua da ikasleari gustuko tresna eskaintzea eta horrek dituen abantailak eta aukerak behar ahala erabiltzea.

Hizkuntzen irakaskuntzan erabili izan diren erreminten atzera begirakoa egi-ten badugu, urruti samar geratuko zaigu 70eko hamarkada, eskoletan entzumenak eta grabazioak egiteko asmoz zintazko kaseteak erabiltzen zirenekoa. 80koan, garai digitala etortzeaz batera, ordenagailuen berri izan genuen. Urte batzuk geroxeago, Internet agertu zen, baita PDAk, iPodak eta bestelako tresna elektronikoak ere. 2007tik aurrera ukimen-pantailadun mugikorrek ditugu.

Aipatutako teknologia berriek hainbat aukera eskaintzen dizkiete hizkuntza-ikasleei. Tabletarako edota eskuko telefonorako aplikazio berriek edozein unetan eta tokitan ikasteko aukera ahalbidetzen dute; ikasleak tresna erabilgarriak ditu eskura une oro. Mugikorren kasuan, bereziki, badira ikasleak erakartzen dituzten ezaugarri ugari: kasik ordenagailuak adina erabilerakoa ditu, ordenagailua baino merkeagoa da, ez da zertan ordu eta toki zehatzean erabilirik, pasahitzik sartu barik maneiatzen da, tresna fidagarria da, herritar gehienek dute eskura, e.a.

Hizkuntzen ikaskuntzan sakelako telefonoak erabiltzeko orduan, oztopoak ere badira. Teklatu txikiak eta Interneteko tarifak dira traba aipagarrienak, baina onartu beharra dago gero eta garrantzi gutxiagokoak direla, bai pantailak handituz doazelako (azken bizpahiru urteetan bereziki), bai konexioaren prezioa merkatuz doalako.

2. Telefono-aplikazioak

Aipatu bezala egungo telefono mugikorrek komunikatzeko tresna hutsa baino gehiago dira. *App* izenez ezagunak diren sakelakoetarako aplikazioak moda bihurtu dira smartphone edo sakelako telefono adimentsu erako telefono erabiltzaileen artean. Aplikazio horiei esker mila gauza egin ditzakegu: telefonoz hitz egiteaz gain, liburuak irakurri, pelikulak ikusi, idatzi edo marraztu, argazkiak atera, azken berrietara adi egon, lan egin, erosketak, gure gorputza zaindu... eta hamaika gehiago. Behar bakoitzerako aplikazio bat dagoela esan dezakegu. Hona hemen batzuk.

¹ http://eu.eustat.es/estadisticas/tema_132/opt_0/temas.html

2.1. Hizkuntzak ikasteko aplikazioak

- *kxo!* euskarazko oinarrizko lexikoa ikasteko aplikazioa da, eta El-huyarrek merkaturatu berri du smartphoonearako (Android eta iPhone plataformetarako).

Gaztelania, ingelesa edo frantsesa abiapuntu hartuta, euskara ikasi ahal du erabiltzaileak. Helburua da euskaraz ezer ez dakienari edo euskara apur bat dakienari ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko baliabideak eskaintzea. Hainbat ariketa proposatzen ditu entzumena, irakurmena eta idazmena lantzeko.

- *uSpeak*: ingelesa ikasteko jokoetan oinarritutako doako aplikazioa, iOS (iPhone edo iPad) sistemarako. Enpresak gaztelania ikasteko bi programa ere baditu.
- *Voxy*: ingelesa ikasteko metodoa da eta ariketen bitartez ohiko esaldien lanketa egiten du. Irudiak eta kantak ere erabiltzen dira aplikazio honetan. Urte baterako harpidetza 10,45 euro. iOS eta Android sistemetarako.
- *Busuu*: hainbat hizkuntza praktikatzeko eta hobetzeko plataforma elkarrenergilea. A1 mailatik B2 mailara arteko unitate didaktikoak ditu: audio eta irudi bidezko materiala, 3.000 hitzetik gorako hiztegia eta 150 gai. Bertsio osoak 15,99 euro hilean balio du eta doako bertsioak 20 ikas-unitate ditu. iOS eta Android sistemetarako erabilgarria.
- The New York Times egunkariak ere tarteko maila dutenentzako ingelesa ikasteko metodoa garatu du. Lehenengo hamabi gaiak 2,99 dolarren truke.
- Frantsesa ikasteko *Francés verbos HD* aplikazioa dugu eskuragarri iOS sistemarako.

2.2. Bestelako aplikazioak

- *EuskalAlbisteak*: mugikorretan eta tabletetan euskaraz idatzitako albisteak kontsultatzeko aukera ematen duen aplikazioa.
- *Konboketak*: eragiketa konbinatuak eta kalkulu mentala praktikatzeko joko bat da. Jolasteko 2 modu eta 20 zailtasun maila dituen joko hezigarria, ume txikientzat erraza denetik, benetako kalkulu erronketaraino.
- *Ipuinak entzun*: Txanogorritxo, Hiru txerrikumeak... bezalako ipuin klasikoak entzuteko aplikazio berria da.
- *Newtondarrak*: umorez eta abenturen bitartez teknologia berriak ezagutzeko garatutako aplikazioa. Euskal egile batzuek sortutako sekuentzia didaktiko elkarrenergile bat da, eta nagusiki komikiaren munduaz dihardu.

- *Irriklik*: aplikazio honen bidez “Irrien Lagunak” klubera argazkiak bidali daitezke.
- *Flickr*: nor bere argazkiak sarera igo, ordenatu eta galerietan besteek ikusteko moduan jartzea ahalbidetzen duen zerbitzua da.
- *Endomondo*: kirolarientzako oso aplikazio baliagarria da. Behin telefonoan instalatuta, bizikletaz, korrika, mendia edo erabiltzaileak egin nahi duen kirola hautatzen du. Beste neurketa guztiak, aplikazioak berak egiten ditu.
- *Flipboard*: iOS sistemetarako aplikazio berria da. Oso erabilia iPhone eta iPad telefono eta gailuetan oihartzun handia lortu du. Aplikazio honek aldizkari digital baten itxura du.
- *Twitter*, *Facebook* eta *Google+*: sare sozialetan ezagunenak dira.
- *Dropbox* eta *Google Drive*: biltegi birtualak dira biak. Bertan gorde daitezke dokumentuak eta edonon egonik kontsultatu, aldatu edo berriak jaso.
- *Telegram*: telefono bidez mezuak elkarri bidaltzeko aplikazioa da. Mezuetan, testuez gain beste fitxategi batzuk ere elkar trukatu daitezke: argazkiak, bideoak, etab. Seguritate handiagoa lortzeko zifratze-sistemak erabiltzen ditu. Hainbat sistema eragiletan erabiltzeko sortua da, esaterako, Android, Mac OSX eta iOS.
- *WhatsApp*: mugikor bidez txateatzeko modako aplikazioa da. Honixe erreparatuko diogu bereziki hurrengo pasarteetan.

3. WhatsApp

WhatsApp –izena *What’s up?* espresiotik dator– mezuak bidaltzeko eta jasotzeko telefono-aplikazio merke-merkea da (2013ko martxotik plataforma guztietarako doako deskarga urtebeterako eta epe horren ostean 0,86 euro urtean). Testuko mezuez gain, aplikazioak aukera ematen du ikus-entzunezkoak bidaltzeko, ahots-oharrak grabatzeko eta igortzeko, baita jasotako testu-mezuak inprimatzeko ere. Laster, antza, doako deiak egin ahalko dira. 2009aren hasieran sortua, aurten 500 milioi erabiltzaile baino gehiago ditu. 2014ko otsailaren 19an Facebook enpresak erosi zuen aplikazioa.

WhatsApparen arrakasta argia da, CISen (Centro de Investigaciones Sociológicas) 2014ko iraileko “barometro”an ikus daitekeenez², besteak beste. Telefono-aplikazioak edozein erabiltzailek dituen komunikazio beharrak asetzen ditu eta era naturalean nagusitu da inguru askotan, baita irakaskuntzan ere funtzio horrekin sortua ez izan arren.

² http://datos.cis.es/pdf/Es3038mar_A.pdf

Argi dago irakaskuntzan WhatsAppen erabilerak bere mugak dituela. Ikasle batzuek ez dute erraz onartuko irakaslea taldekidea izatea. Egindako inkesta baten arabera (Merelo eta Tricas, 2013) WhatsApp-taldea dutenen artean irakasleak oso gutxitan, % 8an, izaten dira taldekide.

Bestetik, % 20k ikaskide guztiak ditu taldean eta % 73k ezagunak baino ez ditu onartzen. Beste batzuek, berriz, ez dute gustuko informazio pertsonala –telefono-zenbakia– zabaltzea.

Hala ere, traba horiek gaindituta aplikazioak garrantzi handia izan dezake ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan. Bertan ikasleek informazioa trukatu egiten dute, klasean egindakoaren berri ematen diote huts egin duenari, azken txutxu-mutxuen gainean aritzen dira...

Zalantza barik, erabilera didaktikoa ere badu. Ohikoa da klaseko proiektuak edo lanak egiteko taldeak sortzea edo irakasleak, eskolako jarduna osatzeko aldera, ariketa/egiteko osagarriak agintzea.

4. Gure esperientziak

4.1. Abiapuntua eta ondorengo erabakiak

2012-2013 ikasturtean izandako C1eko ikasle ohiekin mantentzen genuen WhatsAppen bidezko harremanak eraman gaitu artikulu hau idaztera. Euskaltegiko ikasle zirenean, WhatsApp-taldea, gehienbat, zalantzak argitzeko erabiltzen zuten. Irakaslea taldearen kudeatzailea bazen ere, behar-beharrezkoa zenetan baino ez zuen parte hartzen zuzenketak edo proposamenak eginik.

Ikasturtea bukatzean, gehienek, noiz edo noiz gauza hutsaletarako idazten zuten arren, gutxi batzuek euren laneko zalantzak argitzeko erabili zuten WhatsAppa.

Hona hemen adibide batzuk.

16:32, 2013/9/17 - ARANTZA: Arratsalde on, irakasle
16:32, 2013/9/17 - ARANTZA: kar kar
16:33, 2013/9/17 - Irakaslea: Zer duzu oraingoan? Kar kar
16:34, 2013/9/17 - ARANTZA: Ospitaleko kontu bat itzultzen ari naiz eta zalantza sortu zait. Lagunduko didazu, mesedez?
16:34, 2013/9/17 - Irakaslea: Galdetu, galdetu
16:36, 2013/9/17 - ARANTZA: Pazienteentzat aholku zerrenda egin behar dut eta ez dakit aditz guztietan nominalizazioa jarri ala ez.
16:37, 2013/9/17 - Irakaslea: ez du zertan.
16:37, 2013/9/17 - Irakaslea: ... komeni da, ... aholkatzen da, ... formak ere erabil ditzakezu.
16:38, 2013/9/17 - Irakaslea: eta jakina agintera ere
16:39, 2013/9/17 - ARANTZA: Eskerrik asko. Gero postara bidaliko dizut. -

13:32, 2013/10/9 - DEIENE: eguerdi on
 13:33, 2013/10/9 – Irakaslea: bai. Egin duzu atzo komentatu zenidana?
 13:33, 2013/10/9 – DEIENE: bai. Ea ulertzen duzun.
 Ikerketaren helburua: Diagnostikoa, hedapenaren ikerketa, jatorri neuroendo-
 krinoa daukaten tumore zehatzen errekurrentzien detekzio eta jarraipena da.
 13:35, 2013/10/9 – Irakaslea: Deiene, ez dut tutik ulertzen. Ni gaixoa izango
 banintz, ez nintzateke proba egitera joango.
 13:37, 2013/10/9 – DEIENE: benetan? Ez da ulertzen?
 13:37, 2013/10/9 - Irakaslea: nik ezer ez
 13:40, 2013/10/9 – DEIENE: hobeto azaltzen saiatuko naiz

WhatsAppen erabilera praktikoa aztertzeko asmotan eta gaur egun indar handia hartzen ari den BYOD –*bring your own device*, ekarri zeure gailua alegia- joerari jarraituz (Muñoz, 2013), Ulibarri Euskaltegiko hainbat taldetan, proposatu genien ikasleei WhatsApp-taldeak sortzea nork bere tresna erabilita. Esperientziak bi zati izan ditu, 2014an: otsailetik ekainekoa eta irailetik azaro bitartekoa. Gure helburua telefono-aplikazioak eskaintzen dituen aukerak aztertzeko izan da: ikasle-ikasle zein ikasle-irakasle arteko komunikazioa, haiek engaiatzeko gaitasuna eta erabilera didaktikoa.

4.2. 2014ko otsaila-ekaina bitartekoa

Lehenengo mailako ikasleekin burutu dugu esperientzia; A1 mailako 15 ikasle (6+9) eta B1 mailako 9 ikasle hartu dute parte.

Hasieratik ikasleen oniritzia jaso genuen eta aplikazioa erabiltzeko telefono egokirik ez zuten bi ikasle izan ezik, beste guztiek aho batez onartu zuten proposamena.

Erabileraren azterketa lehenengo mailako 3 talde aukeratu genituen, A1 mailako bi talde eta B1 mailako talde bat. Egokia iruditu zitzaigun euskara maila apaleko taldeak hautatzea; izan ere, aplikazioa erabiltzeak ez du zailtasun berezirik eta edozein hizkuntza-mailatako ikasleek erabil zezaketela egiaztatu nahi genuen.

Hasieran esan bezala, WhatsApp taldeak 2014ko otsaileko lehenengo astean sortu genituen hiru taldeetan eta azterketa egiteko jaso genituen azken datuak uztailearen hasierakoak dira; beraz, bost hilabete zehar jasotako informazioa erabili dugu.


Azterketa egiteko hainbat irizpide -bidalitako mezu kopurua, mezuen nolokotasuna eta helburua- hautatu ditugu eta hiru taldeen arteko aldeari erreparatu diogu.

4.2.1. Mezu-kopurua

A1 mailako lehenengo taldean –A1(a)– sei ikasle eta irakasle hartu zuten parte; taldeko zazpigarren ikasleak ez zuen aplikazioa erabiltzeko te-


lefono egokirik. 492 sarrera egon ziren guztira. Irakasleak idatzi zituenak zenbatzen ez baditugu 337 mezu dauzkagu, hau da, batez beste 56 mezu ikasleko. 1. Grafikoan dugu banaketa.

1. Grafikoa



Maila bereko bigarren taldeen –A1(b)– hamar partaide egon ziren, irakasleaz gain bederatziz ikasle. Guztira 937 mezu bidali zioten elkarri, horien artean 582 ikasleenak izan ziren. Beraz, 65 mezu ikasleko. Banaketa, 2. Grafikoan.

2. Grafikoa




B1 mailako taldeari dagokionez, hamar ikasleri luzatu zitzaien proposamena. Ikasle batek ez zuen aplikazioa erabiltzeko telefono egokirik eta ezin izan zuen esperientzia parte hartu. Beste hamarrek, berriz, oniritzia agertu zuten.

Irakasleak berak sortu zuen WhatsApp-taldea, baina hortik aurrerako lana ikasleen esku utzi zuen. Ikasleek aukeratu zuten bai taldearen ikurra, baita izena ere.

Ikasleen parte hartzea aztertuta, esan daiteke alde handia dagoela taldeki-deen artean; guztira 818 sarrera egin dira, horietatik 205 idatzi ditu irakasleak eta beste 613 sarrerak ikasleek dira (ikus 3. Grafikoa).

3. Grafikoa




B1 honetan, talde orokorraren barruan aritzeaz gain, 4 ikaslek erabili zuten aplikazioa irakasleari zuzenean WhatsAppa bidaltzeko. Mezu kopurua, ordea, txikia izan zen, guztira 26 mezu; 25 testu-mezu eta audio bat.

4.2.2. WhatsAppeko mezuen ezaugarriak

Ezaguna denez, telefono-mezuek berezko ezaugarriak dituzte. Mezuetan ahozko eta idatzizko komunikazioaren arteko hizkera erabiltzen da; hitz egiten dugun bezala idazten dugu, komunikazio-trukea esaldi laburren bitartez izaten da. Mezuak hitz gutxikoak eta ia puntuaziorik gabekoak izaten dira gehienetan; gainera, laburduren erabilera funtsezkoa da mezuen zama arintzeko. WhatsAppeko idatzizko testuek ere aurreko ezaugarri guztiak betetzen dituzte.


Luzerari dagokionez, mezuak bi multzotan sailkatu ditugu: hamar hitzetik gorakoak –mezu luzeak– eta hamar hitz baino gutxiagokoak –mezu laburrak–. Esan behar dugu ugariagoak direla mezu laburrak luzeak baino eta ikasleen euskara ezagutza-mailak ez duela eragin handirik; izan ere, B1 eta A1 (b) taldeen arteko aldea txikia da eta A1 mailako taldeen artekoa nabariagoa, 4. Grafikoan ikus daitekeen bezalaxe.

4. Grafikoa



B1 mailako ikasleen mezuek goian aipatu ezaugarri gehienak betetzen dituzte. Talde honetako mezu gehienak, % 90a, laburrak dira, hamar hitz baino gutxiagokoak. Hala ere, ikasleek ez dute berdin jokatzeko aplikazioa gelako WhatsApp-taldetik kanpo erabiltzen dutenean. Izan ere, mezu luzeagoak idazten dituzte irakaslearekin mezu-trukean ari direnean. 5. Grafikoan islatzen da azaldutako aldea.


5. Grafikoa



Bestalde, maila honetako ikasleek ez dituzte telefono-mezuetan ohikoak diren laburdurak erabiltzen. Emotikonoen maiztasuna ere ez da handia, mezuen % 14,5ean baino ez da agertzen. Iruditxo hauek funtzio bikoitza betetzen dute mezuetan, batzuetan idatzitakoa indartzeko erabiltzen dituzte ikasleek eta beste batzuetan hitzen ordeztu erabiltzen dira agurtzeko, adostasuna, poza, edota tristura adierazteko.


Mezuen nolakotasunari erreparatuz gero, zalantza barik esan dezakegu testu-mezuak, testu hutsekoak zein emotikonoa duten testu-mezuak, askoz ugariagoak direla irudia, audioa, argazkia edota bideoa dutenak baino. Ikasleek, gehienetan, idazteko erabili dute WhatsApp (6. Grafikoa).

6. Grafikoa



Edukiari dagokionez, argazkiak, audioak eta bideoak bidali dizkiote elkarri ikasleek testurik gabeko mezu.etan (ikus 7. Grafikoa).

7. Grafikoa



Ikasleek ez dute mezuetan puntuazioaren erabilera baztertzen, ezta laburrenetan ere, eta askotan idatzitakoari bizitasuna emateko erabiltzen dituzte puntuazio-ikurrak.

4.2.3. Mezuen helburua

Ikasleei WhatsApparen erabilera proposatu genienean ez genien irizpide zehatzik eman; gure helburua aplikazioak eman zitzakeen aukerak aztertzea zen. Horrela izanik, ikasleei taldekideen arteko harremanetarako erabiliko genuela baino ez genien esan. Ikasleen oniritzia jaso genuen eta gehienek aipatu zuten aplikazioak klasean egindakoaren berri elkarri emateko erabil zezaketela. Aurreiritzi horrekin ekin genion azterketari.

Zaila da mezu guzti-guztien helburua zehaztea. Askotan ez dago argi mezua-
ren helburua zein den; beste batzuetan aurrekoaren erantzuna baino ez
da eta horrek zaildu egiten du zenbaki eta kopuruetara eramatea, aurreko
ataletan egin dugun bezala.

Aurrekoa egia bada ere, mezuen azterketa egiten hasi ginenean ikusi ge-
nuen mezu gehienak bi multzotan sailkatzeko modukoak zirela: alde ba-
tetik, klaseko jardunarekin harreman zuzena dutenak, eta, bigarrenean, tal-
dekideen arteko elkarreraginarekin lotutakoak. Honelakoak dira nagusi, ale-
gia, mezu gehienek ez dute klaseko lanarekin harreman zuzenik eta horietan
elkar agurtzea, mesedeak eskatzea, zoriontzea, klasera joan ez izana zuri-
tzea izan da ikasleen helburua. Ondorioz, honako hau da proposatzen du-
gun sailkapena.

MEZUEN HELBURUA

1. Klaseko jardunarekin lotutakoak:
 - 1.1. Zalantzak argitzeko, irakasleak zein ikasleek galdetuta.
 - 1.2. Klasean egindakoaren inguruan informazioa eskatzeko / emateko.
 - 1.3. Informazioa edo azalpenak emateko.
2. Bestelakoak:
 - 2.1. Elkar agurtzeko.
 - 2.2. Taldekideen arteko harremana sendotzeko.
 - 2.3. Elkarri animoak emateko.
 - 2.4. Klasera joan ez izana zuzitzeko.
 - 2.5. Mesedeak eskatzeko
 - 2.6. Zoriontzeko.

Ikus ditzagun, orain, hainbat adibide.

- 1.1 Ikasleek batzuetan WhatsAppa zalantzak argitzeko erabiltzen dute eta irakasleari egiten diote galdera. Beste batzuetan irakasleak galdetzen du.

18:53, 2014/2/20 - Irakaslea: Ondo pasa asteburuan, azken hau guztiontzat da
18:54, 2014/2/20 - ISMAEL: audio
18:56, 2014/2/20 - Irakaslea: Zer diozu, Ismael?
18:56, 2014/2/20 - ISMAEL: Kar kar kar
18:58, 2014/2/20 - ISMAEL: Ezinezkoa da, wassap irakurtzea eta alabeei etxe-
ko lanak azaltzeko
19:01, 2014/2/20 - Irakaslea: Zer da hori zuzetatzat? Ah, barkatu, gizonek gau-
zak banan banan baino ez dituzte egiten. Kar kar

19:01, 2014/2/20 - IZASKUN: Eskerrik asko, montse. Zer da kar kar?
19:56, 2014/2/20 - Irakaslea: Ja ja
20:54, 2014/2/20 - IZASKUN: Ja ja zer? Farregarria da ala?
21:36, 2014/2/20 - ISMAEL: Ja ja = kar kar
10:29, 2014/2/28 - MARI JOSE: Nola lortu duzu Guachapa berriro??
10:32, 2014/2/28 - GEMMA: bere onera etorri da solito, ordaindu gabe baina epea bukatuko da matxoaren 31ean
13:29, 2014/2/28 - Irakaslea: Gemaren azken mezuan akats bat dago, ea topatzen duzuen
13:38, 2014/2/28 - MARI JOSE: maRtxoaren 31an??
13:39, 2014/2/28 - Irakaslea: Bero, baina ez
13:50, 2014/2/28 - GEMMA: solito?
13:51, 2014/2/28 - Irakaslea: Ez, ez
13:51, 2014/2/28 - ISMAEL: Ez ez
13:51, 2014/2/28 - ISMAEL: Kar kar,,,
13:52, 2014/2/28 - Irakaslea: Badakizu?
13:52, 2014/2/28 - ISMAEL: Gauza da ' la coma'
13:52, 2014/2/28 - ISMAEL: Kar kar kar....
13:53, 2014/2/28 - ISMAEL: Da 'n'
13:53, 2014/2/28 - ISMAEL: Hogeitahamaika
13:54, 2014/2/28 - Irakaslea: Hori ere bai. Baina akatsa dago deklinabidean
13:54, 2014/2/28 - Irkaslea: Bai, horixe
13:55, 2014/2/28 - MARI JOSE: Sentitzen dut. Bota komodina!!!
13:55, 2014/2/28 - Irakaslea: Zbkia ez dago ondo idatzita, Ismael
14:02, 2014/2/28 - GEMMA: martxoaren 1ean bukatuko da
14:02, 2014/2/28 - ISMAEL: Hogeita hamaika
14:03, 2014/2/28 - ISMAEL: Zein deklinabidetan?
14:09, 2014/2/28 - Irakaslea: 31n
14:10, 2014/2/28 - Irakaslea: Oooh! Ez duzue asmatu
14:27, 2014/2/28 - GEMMA: isma, bai.

14:58, 2014/3/11 - Irakaslea: Zuzendu honako esaldi hau: Utzi zion au-pair lana ezezik moja-etxe ere bai.
16:28, 2014/3/11 - MARIAN: imagen
16:28, 2014/3/11 - MARIAN: Hemen dago nire familiako argazkia ihauterietan
16:29, 2014/3/11 - MARIAN: 😊 😊
16:35, 2014/3/11 - Irakaslea: Ohhh!
16:39, 2014/3/11 - ESTI: imagen
16:43, 2014/3/11 - Irakaslea: Jesus, Maria eta Jose!
17:35, 2014/3/11 - PILI: Au-pair lana utzi zuen, baita moja-etxea ere.
17:36, 2014/3/11 - PILI: Begiratu esaldia ondo dagoen...

17:40, 2014/3/11 - Irakaslea: Ederto!

17:41, 2014/3/11 - Irakaslea: 😊

17:41, 2014/3/11 - Irakaslea: Eta ezezik erabilita?

19:16, 2014/3/11 - ISMAEL: Ez da aupair lanii???

19:38, 2014/3/11 - PILI: Nire ustez 'lan egiteari utzi zion' da, ez lani utzi...

19:41, 2014/3/11 - PILI: Es dut gogoratzen 'ezezik forma'... katxissss!!!

21:27, 2014/3/11 - ESTI: Au- pair lana ezezik moja- etxea utzi zuen ere. Esan ahal da horrela?

21:31, 2014/3/11 - Irakaslea: Ere hor ondo dago?

21:31, 2014/3/11 - ESTI: Kendu egin behar da.

21:32, 2014/3/11 - ESTI: Ezezik jarri dut eta. Horrela:

21:35, 2014/3/11 - ESTI: Au- pairezezik moja etxea ere utzi zuen.

21:35, 2014/3/11 - ESTI: Lana ezezik

21:37, 2014/3/11 - ESTI: Au- pair lana ezezik moja etxea ere utzi zuen

- 1.2 Batzuetan ikasleek klasera joateko aukerarik izan ez dutenean, elkarri galdetzen diote gelan egindakoaren berri izateko.

16:16, 2014/2/8 - ESTI: Gauza bat: zeintzuk dira etxekolanak? "Bi letter.." atzo irakurri nuen, idazmena orain hasiko naiz. Baina zer dago gehiago?

16:36, 2014/2/8 - Irakaslea: Besterik ez

17:41, 2014/2/8 - ESTI: Eskerrik Asko.

9:50, 2014/2/26 - ESTI: Bihar eta etzi ez naiz etorriko lanera. Izan ere, ikastaro bat daukat unibertitatean

9:50, 2014/2/26 - KARMELE: 😊

9:51, 2014/2/26 - ESTI: badaude etzekolanik?

13:52, 2014/2/26 - Irakaslea: Atzo fotokopia batzuk banatu nituen. Ahal eta ezin lantzeko ariketan lehenengo 15 esaldiak ostegunerako

1.3 à Beste batzuetan bestelako informazioaren berri emateko erabili dugu aplikazioa.

10:41, 2014/2/6 - Irakaslea: San Valentín egunerako sariketa antolatatu dugu euskaltegian. Arratsaldean komentatuko dizuet

10:42, 2014/2/6 - Irakaslea: 😊

17:08, 2014/2/6 - Irakaslea: 50-100 hitz bitarteko testua

- 2.1 Ikasle-irakasleen arteko harremana sendotzeko.

19:33, 2014/2/5 - KARMELE: Zuek jotake "guasaping" egiten eta ni egun osoa biharko berriaren bila!!!

Joango naiz "Hola" erostera egunkaria tristegia da eta....

19:34, 2014/2/5 - KARMELE: Montse!!!!!! Ez daukat "inspiration"
 19:42, 2014/2/5 - Irakaslea: Nahi duzu bihar goizean berri bat bidaltzea?
 20:00, 2014/2/5 - KARMELE: Ehhh???nola bihar goizean bidaltzea?? Ez di-
 zut kapiski (ulertzen)
 20:06, 2014/2/5 - Irakaslea: Nahi baduzu interneten zeozer topa dezaket eta pos-
 taz bidali. Baina orain etxetik kanpo nago -alabaren urtebetetzea da-. Gaur be-
 randv, edo bihar 10ak aldera bidaliko dizut berria. Irakurtzeko denbora izango
 duzu...
 20:09, 2014/2/5 - KARMELE: Ez ez kezkatu besteek egin dute zure laguntza
 gabe. Nik ere bai!!!ZORIONAK zure alabariiii!!!! 🤔 🤔 🤔
 20:11, 2014/2/5 - Irakaslea: Bai, zure partez!

• 2.2 Klasera agertu ez izana zurrizteko.

21:18, 2014/2/6 - KARMELE: Azkenean ez naiz joan egun oso txarra izan de-
 lako .sentitzen dut.
 21:21, 2014/2/6 - Irakaslea: Ez kezkatu! Asteartean egongo gara. Ondo pasa as-
 teburuan

• 2.3 Zoriontzeko.

10:31, 2014/2/12 - GEMMA: 🤔 🤔 🤔 Urtebetze bat daukagu gaur
 10:31, 2014/2/12 - GEMMA: Pistak
 10:32, 2014/2/12 - Irakaslea: Norena?
 10:32, 2014/2/12 - GEMMA: Primera egiten ditu idazlanak
 10:33, 2014/2/12 - GEMMA: Montseren begikoen bat da
 10:33, 2014/2/12 - GEMMA: wtxap duena
 10:44, 2014/2/12 - Irakaslea: Ismael?
 10:45, 2014/2/12 - Irakaslea: ZORIONAK

• 2.4 Mesedeak eskatzeko.

22:40, 2014/3/20 - ESTI: Norbaitek eraman ahal du bihar liburua? Dauzkat ari-
 ketak zuzendu gabe....

• 2.5 Elkarri animoak emateko.

17:32, 2014/2/22 - MARI JOSE: Gemma, zorte on asterketan!!!
 17:32, 2014/2/22 - MARI JOSE: Uste dut ondo egingo duzula!!!
 17:33, 2014/2/22 - Irakaslea: Bai, ondo egin. Seguru
 17:33, 2014/2/22 - MARI JOSE: Ziur nago gaudituko duzula!!!
 12:34, 2014/2/23 - GEMMA: 🤔

4.2.4. Balorazioak

WhatsApp hizkuntzaren erabilera naturala ahalbidetzen du; ikasleak komunikazioa du helburu eta, aurreko mezuetan ikus daitekeenez, ez da akatsen beldur. Zuzentasunak ohorezko postua galtzen du eta dagokion pisua hartzen du komunikazioan.

Azterketa honi bukaera emateko aplikazioaren erabilerekin balorazioa eskatu genien ikasleei. Taldekide guztien balorazioa oso ona izan da. Gehienek adierazi dute oso gustura ibili direla eta hizkuntza modu naturalean erabiltzeko aukera ematen duela.

4.3. Iraila-azaroa bitartekoa: erabilera didaktikoa

4.3.1. Planteamen- dua

Sarreran aipatu bezala WhatsApp badu erabilera didaktikoa ere: ikasgelan ikasitakoa berrikustea, sakontzea, lantzea, ebaluatzea, e.a. Arlo hau frogatu nahian A1eko 12 ikasleko talde batekin ekin genion lanari. Eta horretarako aipatutako mailako eraketan inguruko unitateaz baliatu ginen.

Ikasleei proposatu eta oniritzia jaso genuen. Hasieratik argi utzi genien WhatsApp erabilera didaktikoa emango geniola eta lan egiteko prozedura bikoitza izango zela.

Batetik, bakarka aritzeak ahalbidetuko zuen modu estuago eta pertsonalizatuagoan lan egitea ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteko. Irakasleak ere bideratuago egingo zituen zuzenketak.

Bestetik, taldean aritzeak bakarkakoak baino lan kolaboratiboagoa eskatuko zuen. Ikasleek, elkarreraginean aritzeaz gain, testuinguru komunikatiboan hizkuntza praktikatzeko aukera izango zuten.

4.3.2. Erabilitako ariketa-motak eta prozedurak

Hurrengoak izan dira guk erabili ditugun ariketa-motak, beti ere A1eko helburuak kontuan hartuta. Hala ere, prozedurak egokituz gero, baliagarriak izan daitezke gainerako mailetan.

4.3.2.1 Testu-mezuak

Beharbada, testu-mezua da gehien erabiltzen den dinamika eta irakasleak ikasleari segimendu zehatzagoa egin diezaike mezua pribatua bada. Bestalde, ikaslearen inplikazioa maila ere handiagoa izango da irakasleak galdera edo egitekoa modu pribatuan egiten badio eta guk horrela egin genuen gramatika-edukia (behar izan) baloratzeko.

Irakaslearen mezua:

13:28, 2014/10/27: Kaixo, lagun! Gaur Begorekin “Zer behar duzu patata-tortilla egiteko?” ariketa egin duzu (53. orrialdea). Mesedez, bidali erantzunak WhatsApp bidez nire zenbakira. Eskerrik asko!

Ikasleen erantzunak:

21:39, 2014/10/27 - NOELIA: Kaixo Igor! Noelia Naiz. Ariketak pag. 53: - Ez dut koilararik behar patata tortilla egiteko. - Ez dut kazolarik behar patata tortilla egiteko. - Patata tortilla egiteko zartagin bat behar dut. - Patata tortilla egiteko pixka bat gatza behar dut. - Patata tortilla egiteko pixka bat olio behar dut. - Patata tortilla egiteko patatak behar ditut. - Ez dut ganibetarik behar patata tortilla egiteko. - Ez dut sardexharik behar patata tortilla egiteko. - Ez dut sagarrarik behar patata tortilla egiteko. - Patata tortilla egiteko arrautzak behar ditu. - Patata tortilla egiteko sukalde elektrikoa behar du

22:09, 2014/10/27 - TATIANA: Patata tortilla egiteko, zaetagina, gatza, olio, patatak, ganibeta, sardexka, arrautzak eta sukaldea ditut Ez dut ardorik, koilarik, kazolarik eta sagarrarik behar patata tortilla egiteko

WhatsAppeko aplikazioarekin lan egiteak abantaila ugari eskaintzen ditu, baina mugak ere baditu, eta horietako bat zuzenketak egitea da. Gaur egungo aplikazioarekin dugun aukera bakarra da egindako akatsak letra larriz nabarmentzea eta ikasleei birbidaltzea.

Zuzenketa:

08:20, 2014/10/28 - Irakaslea: Patata tortilla egiteko, ZARTAGINA, gatza, OLIOA, patatak, ganibeta, sardexka, arrautzak eta sukaldea BEHAR ditut. Ez dut ardorik, GOILARARIK, kazolarik eta SAGARRIK behar patata tortilla egiteko.

Testu-mezuak istorio kateatuak sortzeko ere erabil daitezke eta dinamika hauek taldeka proposatu.

4.3.2.2. Argazkiak edo irudiak

Irakasleak irudi zein argazki batekin batera landu/birpasatu/ebalatu nahi duen gramatika egitura bidaliko die ikasleei.

Irakaslearen mezua:

13:30, 2014/10/27: Kaixo, lagun! Ariketa bat dut zuretzat: Irudia ikusi.
1- Esan euskaltegiaren ondoan dauden dendak: Zein dira? Non daude?
Bidali erantzuna neuri.



Hau da irudia...

Ikasleen erantzunak:

16:21, 2014/10/27 - SANDRA: Kaixo! Nik ikusi dut ordenagailuan... Tagliatella jatetxa eta Surne aseguruak

Tagliatella euskaltegiaren eskuinean dago eta Surne euskaltegiaren ezkerrean dago

23:02, 2014/10/27 - ARANTZA: Kaixo, Igor! Ni Arantza naiz. Euskaltegiaren ondoan taberna, botika eta óptika bat daude. Optika, tabernaren eta botikaren artean dago

Interneteko loturak, YouTube bideoak, irakasleak zein ikasleek sortutako ikus-entzunezkoak... ere antzeko egitekoak proposatzeko erabil daitezke.

4.3.2.3 Lexikoa lantzekoak

Jarduera hauek unitate bakoitzeko lexikoa sendotzeko erabili genituen. “Hitz-zerrenda” ariketan banaka aritu ginen; “Hizki-zopa”-n, ordea, taldean proposatu genuen, unitateko lexikoa birpasatzeaz gain, ikasleen arteko lehia bultzatzeko.

Hitz-zerrendak

Irakaslearen mezua:

20:17, 2014/10/28: Kaixo, lagun! Unitate honetan erosketak egin ditugu supermerkatuan, fruta-dendan, arrandegian eta harategian. gogoraten duzue zerrenda? Animatu eta bidali zerrenda luzea! Eskerrik asko! Gau on!

Ikasleen erantzunak:

21:01, 2014/10/28- BILAL: bi pakete arrosa, bi pakete makarroi, kilo bat tomate, botila bat olio, bi dozena arrautza, bi letxuga handia eta hiru barra ogi

21:28, 2014/10/28 - AINHOA S: Supermerkatuan; kilo bat azukre, 2 pakete gailera, pakete bat zereala eta 2 litro ur. —Fruta denda; 2 kilo tangerina, kilo 1 musika eta 1/4 mahatsa.— Harategia; kilo erdia haragoi xehatuta eta kilo bar kilo1 oilaskoa.— arrandegian; 2 izokin xerra eta 2 kilo legatza

21:54, 2014/10/28 - ARANTZA: kaixo Igor! Nire zerrenda da: 6 botila esne 1 Docena arrautzak 1 Botila ardoa 1 Kg. Laranja Kilo eta erdi xerra 1 Pote tomatoa Gabon! renta da 6 botila ESNE una docena arrautza acc una botila ardoa un kilogramo en la gran Jack kilo eta erdi Serre un bote de tomate Gabón

21:55, 2014/10/28 - MARISA: Kilo bat patata...bi kilo laranja...barra bat ogi...botila bat ardo beltza....lau yogurt....500 gramo xeri....250 gramo gazta...bat azalorea...kilo bat tipula...zainzuriak....erremolatxak....pakete bat azukre...pote bat piper...eta bat legatza....Beste batzuk: 2kg irin 3L oilo 1kg gatz 150gr gazta 1botila ozpin

23:07, 2014/10/28 - DIANA: Kaixo Igor! Nire zerrenda: Fruitua: 1/2kg sagar 2 anana 250gr gerezi 1kg banana 4kg laranja Barazkia: 1/2kg azenario 500gr piper 3 tipula 1/5kg perrotxiko 1kg onddo 1,5kg baba 150gr berakatz 50gr pe-rexil Harategi: 2 txuleta 1,5kg xerra 2 oilasko 200gr urdaiazpiko 1/2kg arku-me 1kg txerri solomo Arraina: 750gr sardina 3 amuarra 1kg legatz 1/2kg gan-ba Edaria: 2 botila ardo 1L ur Docena botila garagardo

Hizki-zopa

Irakaslearen mezua:

15:55, 2014/10/29: Kaixo, lagunak! Aurkitu hitz-zopan 5 fruta eta bidali tal-dera, mesedez.

I	S	L	M	J	R	U	K	O	L
M	A	R	R	U	B	I	A	H	A
N	G	T	D	W	B	J	H	G	R
R	A	D	I	G	E	R	E	Z	I
W	R	S	P	F	D	T	P	M	N
A	A	N	L	E	B	K	H	N	J
E	R	M	F	L	I	M	O	I	A
P	T	F	T	I	P	G	T	B	L
B	J	S	G	T	E	H	P	T	I
M	I	U	R	K	D	L	R	J	O

Ikasleen erantzunak*:

16:26, 2014/10/29 - SANDRA: Limoia,gerezi,sagarra,marrubia eta laranja
 16:59, 2014/10/29 - AINHOA C.: Marrubia, gerezi, limoia, sagarra eta laranja
 17:44, 2014/10/29 - DIANA: Laranja Marrubia Limoia Sagar Gerezi
 17:47, 2014/10/29 - NOELIA: Sagar Marrubia Limoia Gerezi Laranja
 18:01, 2014/10/29 - AINHOA S.: Nik marrubia, gerezi eta limoia, baino ez dut iku-si sagarra eta laranja. Nik larinja eta sacara ikusi dut. Ez dakit berdina den ala ez
 18:24, 2014/10/29 - MARISA: Marrubi....gerezi...sagarra...larinja....
 18:26, 2014/10/29 - ARANTZA: Kaixo, Igor! 5 fruta dira: Sagar Laranja, aunque está escrito larinja Marrubia Limoia Gerezi*
 19:59, 2014/10/29 - TATIANA: Marrubia, gerezi, limoia, sagarra eta "larinja" Te lo envío, pero bueno ya estan las respuestas en el txat*

* A leko ikasleak zirela kontuan izanda, gaztelaren erabilerari garrantzirik ez ematea erabaki genuen, are gehiago errepikatu ez denean.

4.3.2.4. Ahots-oharrak

Ahots-oharrak ahoskera eta ahozko adierazpena lantzeko egokiak dira.

Irakaslearen mezua:

17:33, 2014/10/30: Arratsalde on, talde! Zer egiten duzu egunero? Grabatu eta niri bidali!

Ikasleen erantzunak*:

19:02, 2014/10/30 - MARIA JESUS: Ni Maria Jesus naiz. Nik egunero esnatzen dut. Ni egunero zazpi eta hamar esnatzen dut. Zazpitan eta hogeian jaikitzen dut. Zortzietan... zortziak larden gutxi gutxitan gosaltzen ari naiz. Zortziak eta bostetan ateratzen dut klasean, klasean ateratzen dut. Zortziak eta erdian euskaltegi sartzen ari naiz.

20:41, 2014/10/30 - KATI: Ni Kati naiz. Arratsaldeko ni askaldu eta gero etxe-ko lanak egiten ditut. Gauero, bederatzia eta erdietan aldean ni afaldu, bitartean telebista ikasten du. Hamaiketan ni ohara jaten naiz. Egunero seiak eta erdietan ni jaikitzen naiz. Zazpiak laurden gutxitan ni dutxatu eta gero janzen naiz. Zazpiak eta laurdenetan ni gosalduta, bitartean egunkaria irakurtzen du. Ni astegunetan goizeko zortzietan ni metroa hartzen du eta zortziak eta erdietan klasean sartzen naiz.

20:59, 2014/10/30 - ERIKA: Kaixo, ni Erika naiz. Zazpiak jaikitzen naiz... eta gero aupegia eta hortzak garbitzen ditut. Gosalduta bitartean irratia entzuten dut. Ni kafesnea eta ogi txigortu ditut, e, espera, eta ogi txigortu... eeee a ver jazen ditut. Eta gero eeee janzten naiz. Ondoren eeee... ondoren... a ver... vamos a ver... bueno eta... gero klasera joaten... naiz. Zortziak eta erdietan... zortzi zortzi eta erdietan sartzen dut.

21:47, 2014/10/30 - ANICETO: Ani naiz. Ni egunero goizeko zazpitan jaikitzen naiz. Jaiki eta gero komunera joaten naiz. Batzuetan dutxa egiten... dut, egiten dut. Zortzi eee... laurden gutxiago gosetzen dut. Gosetzen bitartean telebista ikusten dut eta... telebista ikusten dut eta... telebista ikusten dut eta gero... euskaltegira, euskaltegira joaten... joaten naiz. Euskeraz ikasten... ikasten naiz. Eta... gero eta gero eee... ordu bietan irten naiz... irteten naiz, eta gero pues joaten naiz etaaaa... bueno... eta ez dakit eta... eta kitto.

Ahots-oharren zuzenketetarako irakasleak duen aukera bakarra da ikaslearen grabazioa zuzenduta birbidaltzea.

5. Ondorioak

Azken urteotan telefonoari bultzada izugarria eman diogu, deiak jaso eta egiteak lehentasuna galdu duelarik. Horrek ondorio onuragarriak izan ditzake hainbat arlotan, kasurako, hizkuntzen irakaskuntzan. Gainera, aldaketa horrek ez du inolako inbertsiorik behar, *BYOD* joerari jarraituz, nork bere telefonoa izateak zeharo errazten du erabilera.

Espereziak erakutsi digu telefono aplikazioek, gure kasuan WhatsApp, baidutela lekua hizkuntzen irakaskuntzan. Ikasle/ikasle, zein ikasle/irakasle ar-

*Oharra: horiek dira ikasleek bidalitako ahots-oharren transkripzioak.

teko komunikaziorako bitartekoa izateaz gain, erabilera didaktikorako aukerak ere ematen ditu.

Esperientziaren bigarren zatian zehar zalantzak izan genituen modu informalararen ohiko berehalakotasuna erabilera didaktikoan ere izango ote zen. Egunerokoak erakutsi digu horretan ere ikasleek berdin jokatzeko dutela. Izan ere, irakasleak egitekoa agindu eta, mezuen transkripzioetan ikusten den bezala, berehala jasotzen genuen ikasleen erantzuna.

Artikuluaren eguneroko jardunerako hainbat adibide ematen dugu, baina argi dago, ikasleen maila kontuan izanik, aukera gehiago dagoela: emotikonoak erabilita aurreko egunean egindakoa azaltzea, emotikonoak erabilita filmen izenburuak asmatzeko txapelketa egitea, gelan aipatu edo landu den gaiaren inguruko iritzia idaztea, argazkien deskribapena egitea, gai baten inguruko lexikoa biltzeko, kaleko kartel akastunei argazkia egitea eta zuzenketa proposatzea...

Telefonoak eskaintzen dituen aukerak ikusita, nola defendatu geletan erabiltzeko debekua?

Bibliografia

- Acera, M. A. (2013, apirilaren 4a). Formación: Resultados de usar WhatsApp como complemento a las clases. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://miguelangelacera.com/blog/2013/04/22/formacion-resultados-de-usar-whatsapp-como-complemento-a-las-clases>
- Arcos, E. (2012, urtarrilaren 1a). Cuatro cosas que probablemente no deberías hacer en Whatsapp. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.cookingideas.es/5-cosas-que-probablemente-no-deberias-hacer-en-whatsapp-20120118.html>
- Azkue Fundazioa (2013, urtarrilaren 23a). Gure mugikor edo tabletetan... euskarazko Appak ere! [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/mugikor-edo-tabletetan-euskarazko-appak/>
- Bouman, J. M. (2013, irailaren 10a). Learning via WhatsApp is what's up! [Blog-sarrera] Hemendik berreskuratua: <http://mastersofmedia.hum.uva.nl/2013/09/10/learning-via-whatsapp-is-whats-up/>
- Merelo, J. J. eta Tricas, F. (2013). La irresistible ascensión del WhatsApp. *ReVisión*, 6(2). Hemendik berreskuratua: <http://www.aenui.net/ojs/index.php?journal=revisión&page=article&op=view&path%5B%5D=132>
- Morato, A. (2014). El WhatsApp como complemento de aprendizaje en la clase de E/LE. *Revista Foro de Profesores de E/LE*, 10. Hemendik berreskuratua: <http://foreole.es/revista/index.php/foreole/article/view/233/236>
- Muñoz, J. (2013, uztailearen 9a). Hablamos de Educación: el modelo BYOD para el aula. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://blog.tiching.com/el-modelo-byod-para-el-aula-una-opcion-a-considerar/>
- Reyes (2014, urriaren 20a). Razones para usar WhatsApp en clase. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.clic.es/blogs/formacion/razones-para-usar-whatsapp-en-clase/>
- Romero, M. (2012, uztailearen 23a) ¿Qué es BYOD? La gran tendencia de empresas en el mundo. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.guioteca.com/tecnologia/que-es-byod-la-gran-tendencia-de-empresas-en-el-mundo/>
- Rylance, C. (2014, urriaren 31a). Whatsapp en clase de ELE. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://carlotele.wordpress.com/2014/10/31/whatsapp-en-clase-de-ele/>
- Ruiz, F. (2014, ekainaren 15a). Cómo enviar cualquier tipo de archivo por WhatsApp. [Blog-sarrera]. Hemendik berreskuratua: <http://www.androidsis.com/como-enviar-cualquier-tipo-de-archivo-por-whatsapp>